

2

“Geuk nahi dugun arte”

Patxi Baztarrika

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea¹

Laburpena. Iñaki Martínez de Lunaren lanari erantzunez Patxi Baztarrikak bat egiten du haren oinarriko kezkekin. Oro har, *framing aldarrikatzailea* eta *uzkurraren* baitan ñabardura ugari egin daitekeen arren, euskararen diskurtsoari dagokionez euskararen mundua ez dela kolore bakarrekoa azpimarratzen du, abertzaletasuna bera ere askotarikoa den bezala; euskararen auzia gizarte-bizikidetzaren muinean kokatu behar da, eta, hor euskara zein gaztelania “ez inposatzea, ez eragozte, baizik eta egiazki bermatzea” hirukian kokatu beharko dira. Hau da, bi hizkuntzen arteko osagarritasunean eta berdintasunean oinarrituriko hizkuntzen bizikidetzan. Horretarako, adostasun soziala eta politikoa atxikimenduaren elikagai nagusi modura aktibatu beharko da, *framing berria* eraikitzeko Martínez de Lunak proposatzen duen modura, hau da, hizkuntza-ekologiaren, berdintasunaren eta iraunkortasunaren iturriko emaria jasoz. • **Hitz-gakoak:** *framing-a, hizkuntza-jarrerak, hizkuntza-ekologia, bizikidetzeta.*

Abstract. In response to Iñaki Martínez de Luna’s paper, Patxi Baztarrika agrees with his underlying concern. On the whole, even though many nuances can be made within assertive and reluctant framing, he stresses that the Basque world with respect to Basque discourse is not just of one colour, just as there are all kinds of Basque nationalisms; the Basque issue has to be situated at the core of social co-existence, and therefore Basque as well as Spanish will need to be put within the triangle of “not imposing, not hampering, but truly guaranteeing”. In other words, within language coexistence based on language complementarity and equality between the two languages. To achieve this, it will be necessary to activate social and political consensus to feed attachment, to build the new framing in the way that Martínez de Luna is proposing, in other words, by gathering the flow from the source of language ecology, equality and sustainability. • **Key words:** *Framing, language attitudes, language ecology, co-existence.*

Bihoakie, lehenik eta behin, nire esker ona BAT soziolinguistika aldizkariaren arduradunei, Iñaki Martínez de Lunaren artikulua gainean (“Euskarak duen Framing berri baten premia asetzeko proposamena”) nire ikuspuntua azaltzeko eman didaten aukeragatik. Atrebentzia puska bat ere behar da halako eginbeharrari ekiteko, ausardia baino gehiago ausarkeria, segur aski. Ohore bat da, ordea, eta gogo onez amilduko naiz ausarkeria horretan.

Iñaki Martínez de Lunak urteak daramatza euskal gizarteak euskarari buruz duen irudia eta hark euskarari atxikitzen dizkion balioak aztertzen; urteak, halaber, plaza publikoan nolabaiteko presentzia duten euskararen gaineko diskurtsoak erkatu eta batzuen eta besteen mugei buruzko ikerketak eta hausnarketak egiten; urteak daramatza, orobat, euskararen ge-roa iritzi publikoaren baitan irabazi behar dela predikatzen, eta, testuinguru horretan, diskurtso eta esparru kontzeptual berri baten premia azpimarratzen. Hala, bada, euskararen *framing* berriarena hainbat hitzaldi eta artikulutan jorratu duen gaia da (BAT, 76. zk., urrutira gabe). Eskuartean dugun hau da, ordea, orain artekoetan nik irakurri diodan osotuena, borobilena. Komunikazio politikoaren eta hedabideen eragin kognitiboari lotutako kontzeptu teorikoak bidelagun dituen artikulua da Martínez de Lunarena: mamitsua eta, ohiko legez, zehaztasunez betea. Nago erreferentziazko testu bilakatzeko meritu guztiak dituela.

Eta ausarta da aztergai dugun artikulua. Burrunbarik gabea, baina berritzailea. Euskarari gaur egun duen baino irismen sozial zabalagoa ahalbidetu diezaiokeen bizi-giro epelaren bila atzematen dut Martínez de Lunaren proposamena: epela baina irmoa, barea baina eraginkorra, euskararen bizi-indar eta hedapen sozialerako aurreragarria, ez bairik gabe.

Bat egiten dut euskararen gaineko diskurtsoei eta euskararen irudikapen eta esparru kontzeptualari buruz Martínez de Lunak adierazitako kezkarekin. Eta, aitor dezadan, oso zaila zaidala irakasle arabarraren proposamenari “baina kritikoak” jartzea. Bere artikuluko hari-mutur bati edo besteri tiraka piztu zaizkidan gogoeta batzuk azaltzea da jarraian egingo dudana, jadanik han eta hemen hala edo hola formulatutakoen ildotik.

FRAMING BIAK AURREZ AURRE

I

Bi framing “nagusi” atzematen ditu Martínez de Lunak –sinplifikatuz, berak ohartematen duenez–: “aldarrikatzailea” eta “uzkurra” deitzen dituenak. “Aldarrikatzaile” deiturikoak abertzaletasunean eta planteamendu identitarioan du sorburua: bistan da eraginkorra eta guztiz erabakigarria izan dela besteak beste euskararen desagertze prozesuari

Bat egiten dut euskararen gaineko diskurtsoei eta euskararen irudikapen eta esparru kontzeptualari buruz Martínez de Lunak adierazitako kezkarekin.

**Euskararen
mundua ez da
kolore
bakarrekoa;
mundua
bainoago
munduak ditu
euskarak.
Abertzaletasuna
bera ere
askotarikoa da
euskararen
diskurtsoari
dagokionez.**

aurre egin, norabidea aldatu eta euskara itxaropen bideetan barrena abiarazteko. Aurrera begira jarrita, ordea, framing aldarrikatzaileak, gizartearen parte batentzat baliagarri izaten jarraitzen badu ere –ez dezagun hori gutxietsi-, muga nabarmenak ditu euskara indarberritzearen aldeko jarrera eta jokabidea gizarte osora zabaltzeko eta gero eta herritar gehiagorena izaten laguntzeko. Izan ere, ez du eragiten erakarmen-efekturik abertzale ez diren eta euskaratik urrun daudeneztat –kasu askotan alderantzikoa, baizik-, ez eta abertzale askorentzat ere.

Bitartean, artikulua honen neurriaren barruan aztertu ezin ditugun hainbat arrazoi tarteko, pentsa liteke ahultzen baino gehiago ez ote den indartzen ari “uzkurra” deiturikoa. *Framing* honen ezaugarrietarikoa da hizkuntza askatasuna aldarrikatzea, euskararen erabilera sustatzeko eta bermatzeko politika eraginkorrak, oro har, inposizioarekin lotzea, zilegitasuna edo justifikazio demokratikoa ukatuz azken 25 urteotan EAEn garatu izan den hizkuntza politikari (ez, ordea, Nafarroan edo Iparraldean burututakoei), eta, azken batean, aterpe emanez elebitasun zinikoari (elebitasunaren bandera zertarako eta praktikan elebakartasun soziala defendatzeko altxatzeari deitzen diot horrela) nahiz elebitasun ez berdinkide eta diskriminatzaileari (Hizkuntza Komunaren aldeko Agiriak defendatzen duenari). *Laissez faire/laissez passer* luke goiburu *framing* uzkurtean oinarrituriko hizkuntza politikak.

Framing bakoitzaren ezaugarri eta jarraitzaileei dagokienez, ñabardura ugari egin beharko genituzke, oker ibiliko baikinake iritzi bakoitzeko bloke homogeenok bailiran irudikatuko bagenu bata nahiz bestea. Esaterako, euskararen aldeko eta kontrako jarrera suhar eta tinkoen ondoan, jarrera kritikoak, epelak, kontraesankorrak, “euskararen alde bai, baina segun eta nola”... askotariko jarrera, irudi eta sentipenak daude gure gizartean, agerian eta ezkutuan, ñabardurak lagun. Euskararen mundua ez da kolore bakarrekoa; mundua bainoago munduak ditu euskarak. Abertzaletasuna bera ere askotarikoa da euskararen diskurtsoari dagokionez.

Nolanahi ere, bere horretan eta Martínez de Lunak karakterizatu dituen moduan hartuta elkarri kontrajarriak eta bateraezinak dira bi *framing* “nagusiak”, mutur banatan kokatzen dira, gatazkaren klabeetan baizik ez dute ulertzen euskara eta erdararen arteko erlazioa, inoiz ez bizikidetzaren perspektiban; eta, ondorioz, euskara eta erdarari ez diete uzten irabazle edo galtzaile izatea beste aukerarik. Aginte-makila duen hegemoniadunaren eta makila bera eskuratu nahi duen erresistentearen arteko hil edo biziko lehiatik puska bat badu bi *framing* horien arteko erlazioak. Galdera da ea borroka edo talka horretatik onu-

rarik espero ote litekeen, nahiz euskararen erabilera indartzeko, nahiz bizikidetzarako.

Ausartuko nintzateke esatera gizartearen gehiengoak bi *framing* nagusi horien tartean kokatzen duela bere burua, kontraesan eta guzti bada ere, eta gehiengo direla erdigunean euskararen aldeko *framing* bat gorpuztuta eta errotuta eskura nahiko luketenak. Martínez de Lunarekin bat, ni ere nago bi *framing* horiek gaindituko dituen hirugarrenak Hizkuntza Ekologiaren, Iraunkortasunaren eta Berdintasunaren diskurtsoen iturritik edan behar duela. *Framing* berriaren beharrean gara, besteak beste, euskararen aldeko giroa gizartean areagotzeko, *framing* uzcurraren euskararekiko distantziak murrizteko, euskararekiko aurreiritziak gainditu eta mamuak uxatzeko, euskal hiztunen auto-estimua sendotu eta euskaldunek nozitzen dugun bortizkeria sinbolikoa (Martínez de Lunak horrela izendatzen du erdararekiko mendekotasun barneratua) gainditzeko, belaunaldi gazteak euskara erabiltzera motibatuzeko eta abarretarako. Euskararen bizi-indarra sendotu eta erabilera indartzeko beharrezkoa den hizkuntza politikari ateak luze-zabal irekiko lizkiokkeen *framing*az ari naiz, baina baliozkoa eta eraginkorra izango bada nahitaezkoa da gizartearen gehiengo nagusiak bere egitea. Euskara biziberritzeko proiektua gizarte anizkoitz honen proiektu bateratu eta bate-ragile izatea da behar duguna, inork bere identitate-sentipenei, ideologiari eta lehen hizkuntzari uko egin beharrik gabe.

Honen guztionen beharra azpimarratzera naramana honako konbikzio hau da: euskararen auzia ez da, horrenbestez, euskararen auzia, baizik eta gizarte-bizikidetzaren auzia. Hortaz, hau ez da soilik euskaltzaleen eta euskaldunen kontua, herritar guztiena baizik, euskal hiztunena eta oraindik euskaraz ez dakitenena, baita euskararekiko urrun sentitzen direnena ere.

Kirmen Uriberen pasadizo bat datorkit burura. Idazle ondarrutarrak bere “Bilbao – New York – Bilbao” nobelan kontatzen duenez, Unamunori, Hendaian erbesteratuta zegoela lagunak bisitan joaten zitzaizkionean galdetzen zioten ea noiz arte iraungo zuen diktaturak. Bere erantzuna hauxe izaten omen zen: “Noiz arte iraungo duen? Zuek nahi duzuen arte”. Nago euskararen etorkizunerako ere baliagarria dela irudia, positiboan hartuta: “Noiz arte iraungo duen euskarak? Geuk nahi dugun arte” —bide batez esan dezagun Unamunok iragarri baino denbora luzeagoan eutsi diogula euskarari—. “Geuk nahi dugun arte” horretatik ondorio garrantzi betekoak eratortzen dira. Lehena, gu guztiok garela etorkizunaren jabe. Hortaz, euskarak iraun dezan “nahi” izan behar dugu; “euskara zergatik, zertarako eta nola” galderari erantzuterakoan zenbat eta

Euskararen auzia ez da, horrenbestez, euskararen auzia, baizik eta gizarte-bizikidetzaren auzia.

“Noiz arte iraungo duen euskarak? Geuk nahi dugun arte”.

“Ez inposatu, ez eragotzi, egiazki bermatu, baizik” euskara nahiz gaztelania erabiltzeko aukera.

gehiagotan bat etorri, eta zenbat eta arrazoibide ezberdin gehiago onartu, orduan eta indar handiagoz tira egingo dugu euskararen gurditik; behar dugu jakin zer den euskara indarberritzeko “nahi” hori gauzatzeko ezinbestez egin behar dena, zer deserosotasun diren saihetsezinak aurrera egiteko, zer den bakoitzak egin dezakeena eta norberak baino egin ezin dezakeena, eta zer prezio gauden prest ordaintzeko, guztia ez baita euskara eta euskarak berak ere ez baitu —eta ez du izango— balio bera guztientzako. Hizkuntzaren gainetik dago hiztuna, eta hizkuntza ez ezik beste “osagai” asko ditu hiztunak.

ZILEGITASUNAREN AUZIAZ

Aipaturiko framing berria mamitu dezaketen osagai batzuk baditugu, sendoak gainera. Esaterako, gogoan hartzekoak dira Euskararen Legearen mamia eta Euskara 21 hausnarketa prozesua. 2007-2009 urte tartean Euskara 21 izenburupean burutu zen eztabaida-prozesuak askotarikoen parte hartze zabala izan zuen, eta adostasun handia lortu zen XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren oinarrien gainean. “Itun berritu baterantz” izenburua duen dokumentuan jasotzen dira oinarri horiek. *Framing* berriari gagozkiola, esanguratsua da dokumentu haren izenburuak berak adierazten duen premia: itun berritu baten premia, alegia. “Itun berritu baterantz” dokumentuan jasotako oinarriak oso pieza egoki atzematen ditut *framing* berria osatzeko, besteak beste gaur egungo bi *framing* nagusietako zenbait elementurekin batera.

Bestalde, Euskararen Legearen oinarriek, 30 urte bete ondoren, ez dute galdu gaurkotasunik. Aukera ugari izan zituzten eskura Euskararen Legea egin eta adostasun zabalean onartu zutenek. Aukera bat zuten euskal hiztunak unibertso bereizi moduan hartu eta soilik euskal hiztun zirenei hizkuntza eskubide batzuk aitortzea, euskal hiztunen komunitatea gutxiengo izaten jarraitzea kondenatuz betiko. Beste aukera zuten, ofizialtasun-maila ezberdinak eta hizkuntza eskubideen aitormen ezberdinak egitea lurraldez lurralde edo zonaldez zonalde (Nafarroako moduan, adibidez). Aukera horiek alboratu eta beste bat egin zuten: euskara eta gaztelania, biak, finkatu zituzten neurri berean lurralde osoko hizkuntza ofizialtzat, eta herritar guztiei euskara eta gaztelania ezagutu eta erabiltzeko eskubidea eta hizkuntza eskubide berberak aitortu zitzaizkien. Gainera, herritarrei aitorturiko eskubideak pixkanaka egiazki errespetatuak izan daitezen neurriak hartzeko obligazioa ezarri zitzaizen herri-aginteei.

Hizkuntza bizikidetzarako eredu bat ez ezik, gizarte eredu bat dago aukera horren atzetik. Eta planteamendu horretan dautzan balioak ego-

kiak lirateke *framing* berrirako, 1982an Euskararen Legearen testuinguruan lorturiko adostasun sozial eta politikoa arnasberriturik atera baitaiteke aztergai dugun *framing* berriaren eskutik. Adostasun horren emaria lirateke *framing* berriaren zilegitasun politikoa (herritarren ordezkariak legitimoak onarturiko arauen eta politikaren eskutik gauzatzeko dena) eta zilegitasun soziala (herritarren atxikimenduak balioesten duena). Bi zilegitasun horien ondoan bada beste bat garrantzi betekoa dena: zilegitasun etikoa. Dimentsio etikoari ere egoki erantzun beharko dio *framing* berriak.

Izan ere, saihetsezina da ikuspegi etikotik sortzen den galdera: behartu al liteke giza talde bat bere onarpenik gabe jokabide linguistiko batzuk izatera, nahiz eta jokabide horiek ezinbestekoak izan euskarari indartsu eusteko? Edozein aldetatik begiratuta ere, erdigunean dagoena hiztuna baita, euskara beharrean.

Framing berriak nahitaez aurre egin beharko dio gorabehera honi. Askatasunaren eta berdintasunaren arteko erlazio gorabeheratsuan datza gakoa. Ez dira kontrajarriak: askatasunak beharrezkoa du berdintasuna, berdintasunik gabeko askatasuna lehoiaren askatasuna bailitzateke. Hizkuntza Ekologiaren, Berdintasunaren eta Iraunkortasunaren diskurtsoak oso lagungarri izan litezke korapilo hau askatzerakoan.

Euskal herritar izateko modu asko dago; euskal herritarron identitate ere ez da kolore bakarrekoa, konplexua da, askotarikoa; aniztasuna bera da, hizkuntza aniztasuna barne, gure identitatearen ezaugarri; aniztasuna babestek “bestea” onartzea eskatzen du, diferentzia onartzea, ohartzea guztiok garela “ni” ez ezik “bestea” norbaitentzat. Horrela, bada, guztion hizkuntza-hautuak naturaltasunez errespetatu behar lirateke. Naturaltasunez onartu behar du gaztelaniaren hautua euskaldun euskaltzaleak, eta euskararik erabiltzen ez dutenek ere (herritarren % 70ek) naturaltasunez onartu behar dute euskaldunek euskaraz bizitzeko egiten duten hautua, eta ohartu beharko lukete euskararen hautua egiazki baliatuko badute ezinbestez behar dituztela euskaldunak inguruan (“zein nekeza den euskaldun izatea”). Beste hitzetan esanda, bizikidetzarako baldintza da herritar elebidunez osaturiko gizartea, euskara ere gaztelania bezala sasoizko duen gizartea. Eta osasuntsu izango bada, euskarak, beste ezein hizkuntzak bezala, gune partekatuez gain, behar ditu, jakina, bera “nagusi” den erabilera-guneak ere. Lehenago aipatu dugun adostasun berrituak naturaltasunez bere egin beharko lukeen zerbait da hau.

Hortaz, libertatearen exijentzia betetzea litzateke hizkuntza-hautua egiteko eskubidea duen gizartea eraikitzea, eta berdintasunaren exijentzia errespetatzea litzateke hizkuntza-hautua egiazki egiteko ahalmena

**Ditugun bi
hizkuntzen
arteko
osagarritasuna-
rena da bidea,
berdintasunean
oinarrituriko
hizkuntzen
bizikidetzarena
da etorkizuna.**

herritar guztiei maila berean aitortu eta bermatzea. Hizkuntzen status parekotasuna eta hizkuntza-hautuen berdinkidetasuna eskatzen ditu horrek.

Planteamendu hori honako printzipio honek laburbil dezake: “ez inposatu, ez eragotzi, egiazki bermatu, baizik” euskara nahiz gaztelania erabiltzeko aukera. Ezin ahantzi “diskriminazio negatiboa” edo “inposizio pasiboa” deituko genukeena nozitzen duela elebidunak euskararen hautua baliatu ezin duenean.

Framing uzkurreko hainbatek ukatu egingo digu aipatu “inposizio pasiboa” kohesio sozialaren ikuspegitik eta herritarren askatasunarenetik defizit etiko bat denik. Hala, besteek (nazionalistek) omen duten hizkuntzarekiko obsesio identitario eta ideologikoa salatuko du, eta esango digu hizkuntzak komunikatzeko direla, badugula horretarako hizkuntza komun bat –guztiok gara erdal hiztun-, horrexegatik ez direla berdinkide gaztelania eta euskara, eta guztiok garenez erdal hiztun, ez direla maila berekoak erdaldun hutsaren eskubidea gaztelania erabiltzeko (lehen mailakoa) eta euskaldunarena euskara erabiltzeko (bigarren mailakoa).

Halako planteamenduen aurrean badira beste ertzetik egiten direnak, hegemoniazaletasunaren iturritik edaten dutenak hauek ere. Paradoxikoa badirudi ere Unamunok aurreratu zuenarekin bat egiten duen mezua da: “Nahi dena esango da, baina euskara eta gaztelania bateraezinak dira: egon litezke pertsona elebidunak, baina ez herri elebidunak; elebitasuna egoera iragankorra baita” (Unamuno, 1901). Hitz horien antzekoen ale bat aldatuko dugu hona: “Elebitasunaren hori sekulako gezurra da (...) elebitasun sozialari dagokionez. Iruditzen zait hizkuntza hegemoniko bakarra behar genukeela, nahiz eta norbanakook hizkuntza bat baino gehiago erabiltzeko gai izan (...) Nik neure aldetik, hauxe nahi nuke: Euskal Herri osoan euskara hutsan bizi ahal izatea”.

Aukera erreala al da hori? Hori al da herritar gehienek gogoia? Eta gaztelaniaz bizi nahi dutenak gehiago baldin badira? Bestalde, ikuspegi pragmatiko hutsetik begiratuta ere, kontuan izan beharko genuke elebitasun simetrikodun gizarterik (seguruenik) ez dagoela bezain egia dela ez dagoela, ezta ere, esperientziarik hizkuntza indartsu bati ahulago baten mesedean bizkarra erakutsi eta hizkuntza indartsua eszenategi publikotik kanpora utzi duenik.

Ertz batetik nola bestetik egiten diren aldarrikapen hegemoniazale hauek bi-biak elebakartasun sozialaren adierazle dira. Hegemoniaren talaiatik mintzo da bata, eta talaia horretan dagoena ordeztu nahiko luke besteak.

PARADIGMA BERRIAREN BILA

I Berritzaile izan beharko genuke. Berrikuntza da garaiotako ikur eta iparrorratz nagusia, eta berrikuntzaren joko-zelaiaren arauetara makurtu behar da euskararen etorkizunaren dema ere. Ausartuko al gara errebisionista izaten? Berrikuntzaren exijentzia da euskararen biziberritze prozesuan eragiten duten gizarte-aldaketei eta hizkuntza errealitate zabal eta konplexuaren bilakaerari adi egotea urrats berriak emateko. Perspektiba horretatik begiratuta, ugari dira erronkak, ez dugu hemen lekurik horiez guztiez jarduteko, baina bada bat *framing*-ari lotua garrantzi betekoa iruditzen zaidana: hizkuntza paradigmatari dagokiona, hain zuzen ere.

“Estatu bat → nazio bat → hizkuntza bat” paradigma zaharkitua gainditzea eta eleaniztasunaren kudeaketa demokratiko eta iraunkorraren paradigma garatzea legokioke *framing* berriari, hizkuntza-oreka eta berdinkidetasun soziala helburu dituen eta herritarren hizkuntza aukerak —euskararena barne, noski— egiazki errespetatzen dituen.

Kontua ez baita “beste” hizkuntza ukatzea edo hizkuntza bat hartzea eremu publikoko hizkuntza bakartzat. Ditugun bi hizkuntzen arteko osagarritasunarena da bidea, berdintasunean oinarrituriko hizkuntzen bizikidetzarena da etorkizuna. Esan dezagun elebiduna edo eleaniztuna den eta izan nahi duen gizarte honetan elebakartasuna, eredu sozial gisa, ez dela etikoki onargarria, edozein delarik ere hizkuntza. Eleaniztasunari ez diogu beldurrik izan behar, aberatsa delako, batetik, eta horixe baino ezin litekeelako izan euskararen plazako neurria. Azken batean, kontua da euskarak hiztun berriari mundu berri baterako eta harreman berrietarako, lanerako nahiz gizarte-bizitzarako aukera gehiago ematea, trukean inolako ukaziorik eskatu gabe.

Zilegitasun etikoak, beraz, eskatzen du hizkuntza auziari gatazkaren klabeetan ez baizik eta bizikidetzaren klabeetan erantzutea, elebitasun eta eleaniztasunarenean —ez elebakartasunarenean—, osagarritasunaren klabeetan —ez ordezipenarenean—, aukera berdintasunarenean eta orekarenean —ez hierarkizazio eta desorekarenean—. Eginkizun dugu gaur egun oreka, ikaragarria baita euskara eta gaztelaniaren arteko desoreka. Desoreka hori gainditzeak hegemoniaren talaiaren erosotasunean bizi den mundu elebakarrari hizkuntza bizikidetzaren alderantz —euskarantz— pausoak ematea eskatzen dio, eta mundu elebakar hegemonikoa hizkuntza orekarantz eraginkortasunez interpelatzeko balioko duen *framing*a behar dugu. Eta oreka eraikitzeak hizkuntza politika aktiboa eskatzen du, neurri zuzentzaileak hartzea hizkuntza ahulenaren alde.

**Hizkuntza
aniztasuna modu
orekatuan
garatzea helburu
duen framing
bateratzailea
esan nahi dugu.**

Atxikimendua da zutoin nagusia, ezbairik gabe. Euskara erabili “ahal” izatetik erabili “nahi” izatera eman behar da jauzia, eta “nahi” izate hutsetik erabiltzeko “hautua egitera” egin behar da salto.

Nolanahi ere, neurri zuzentzaileak finkatu eta garatuko dituzten hizkuntza politikak adostasunean oinarrituko badira, beharrezkoa da alde zuzenetik framing berria egituratzea, hizkuntza aniztasuna modu orekatuan garatzea helburu duen framing bateratzailea esan nahi dugu, jakina: euskarari etorkizun oparoa bermatzea gizarte osoaren helburutzat eta euskararen auzia guztion bizikidetzat-eginkizuntzat hartuko duen framing-a.

Framing berriaren eskutik arazo eta erronka berrientzat erantzun berriak aurkitzeko modua izan dezakegu. Munduan zehar erreferentziazko esperientzia aurreratuenetakotzat hartzen dute euskarak azken 25 urtetan EAEn izan duen bilakaera soziala. Hazkunde arrakastatsu horrek, ordea, normala denez, izan ditu ilunguneak, eta, gainera, hazkunde orok izan ohi duen antzera, baditu bere kostuak ere. Kostu horiei eta gizarte-aldaketak tarteko sorturiko erronka berriei erantzuterakoan lagungarri izan liteke *framing* berria, alferrikakoa baita —ez delako erreala- araubide juridikoaren edo borondate politikoaren balizko mirarien zain geratzea.

Framing berriak —eta euskara biziberritzeko prozesuak berak ere— arrakasta izango baldin badu, bi dira nire ustez bete behar diren urrezko baldintzak: herritarren borondatea edo euskararekiko atxikimendua, bata, eta adostasun sozial eta politiko zabala, bestea.

ATXIKIMENDUAZ ETA ADOSTASUN SOZIAL ETA POLITIKOAZ

I

Atxikimendua da zutoin nagusia, ezbairik gabe. Euskara erabili “ahal” izatetik erabili “nahi” izatera eman behar da jauzia, eta “nahi” izate hutsetik erabiltzeko “hautua egitera” egin behar da salto. Legerik gabe, arau eta plangintzarik gabe, neurriko neurriarik gabe ezin da, baliabide eta sustapen politikarik gabe ezin da: nahitaezkoa da hori guztia. Baina gogorik ez badago, behar besteko motibazioz ez badago, alferrik arituko gara. Argi dezagun atxikimendu nahikorik eza edo oso mugatua edo leialtasunik eza aipatzeak ez duela esan nahi herritarrei ezereen “errua” bizkarreratzen diegunik, besteak beste oso oker ibiliko baikinategi “errudun bila” abiatuko bagina, eta orain arte ere euskarak izan duen garapenaren zutoin nagusia herritarren atxikimendua izan baita. Besterik da kontua. Kontua da egiazko —ez balizko— errealitateaz jabetzea.

Badira esaten dutenak “euskaldunok aukera dugun bakoitzean erabiltzen dugun euskara”. Hala balitz, ez legoke gogoia pizten edo piztutako sua bizirik gordetzen eta elikatzen ahalegindu beharrik. Baina egiazki hala ote da, Martínez de Lunak definitzen duen bortizkeria sinbolikoaren

eraginez bada ere erabiltzen ez dugunean? Hala ote da unibertsitateko euskarazko ikasgelen edo institutuko “D” ereduko ikasgelen aurreko pasilloak bat-batean “A” ereduko bihurtzen direnean? Hala ote da euskararen erabilera esparru formaletan etengabe gorantz eta esparru ez formaletan oso makal areagotzen denean? Hala ote da euskararen erabilera ez formalaren neurria gehienetik gutxienera honelatsu denean: haurrak eta nagusiak elkarrekin (seme-alabekin eta aitona-amonekin), haurren artean bakarrik eta neba-arreben artean, nagusiak elkarrekin eta bikotekidearekin. Hala ote da bikote mistoen herenak euskararen transmisioa oso-osorik eskolaren esku uzten duenean?

Berriro diogu: ez da erru kontua, arazo eta muga estruktural ugarik eragiten baitu honetan (euskara-gaitasun erlatiboa eta harreman-sareak batez ere), eta bestelako faktore ugarik (euskararen prestigioa, euskarari atxikitako balioak, euskarazko produktuen kalitate eta gogobetetze maila, norberaren euskarazko adierazkortasuna...); baina horiekin batera uste dut gogoak determinatzen duela neurri erabakigarrian euskararekiko atxikimendua.

Gaur egungo gizartean ez du arrakastarik militantziaren balioak —ez behintzat iraganean beste—; horrek berdin balio du euskararekiko ere. Eta belaunaldi berriek euskararekiko duten loturak ez du zerikusirik garai bateko (diktaduraren azken urteetako eta demokraziaren lehen hamarraldiko) konpromiso politikoarekin, Martínez de Lunak bere idazlanaren hasieran gogorarazten digun bezala. Belaunaldi berriek naturaltasunez, oharkabean, inolako erresistentzia kutsurik gabe bereganatu dute euskara. Guztiz normala zaie euskararen nolabaiteko presentzia beren bizi-paisaian, eta eremu batzuetan euskara eta beste batzuetan gaztelania erabiltzea. Euskara dute hizkuntza akademiko nagusia, eta asko erabiltzen duten ustea dute. Ez dute arriskuan ikusten euskara, are gutxiago euren jokabidearen ondorioz. Euskaltzaleak dira, euren erara, noski. Atxikimendu-mota propioa sortu dute.

Hortaz, gaur egungo atxikimendua behar bestekoa ote da etorkizunari arrakastaz aurre egiteko, gure testuinguru eleaniztunean eta ondoan hizkuntza indartsu bat dugula? Izan ote liteke den baino handiagoa? Hor dira mingaina erretzen diguten galderak. Atxikimendua sustatu eta elikatu egin daiteke, jakina; eta horretan zeresan eta zeregin handia dute herri-aginteek, euskalgintza sozialak, hedabideek, askotariko erreferente sozial eta ekonomikoek. Diskurtsoa ere atxikimenduaren elikagai inportantea izan ohi da. Halere, nahi dugun atxikimendu handiago hori gogoari lotzen zaiola uste dut, eta gogoak batez ere erakargarritasunaren iturritik har dezake indarra. Hizkuntzak berak gertatu behar du era-

**Adostasun sozial
eta politikoa ere
atxikimenduaren
elikagai
nagusizat jotzen
dugu.**

**“Adostasuna
nolako-
atxikimendua
halako”.**

kargarri, baita ere euskarazko produkzioak, eta, jakina, baita hizkuntza komunitateak berak ere, lehenik eta behin euskal hiztunentzat erakar-
garri. Gaztelaniazkoaren mimetismotik urrun, gaztelaniaz beste euska-
raz ere edukitzeko ameskerietatik ahalik eta urrunen, euskaldunoi balio
propioen bat eskainiko diguten produktuek lagun diezaiokete euska-
raren erakarmenari, euskal hiztunen batez bestekoaren neurrira egin-
dako kalitatezko produktuek hain zuzen ere. Askotariko hedabideek
gure gizartean duten eragina kontuan harturik, euskarazko hedabideen
garrantzi estrategikoa alboratu gabe eta estrategikotasunak dakarren
lehentasuna ahanzi gabe bada ere, euskararekiko atxikimendua sen-
dotzeko baliagarria dela uste dugu euskarak presentzia ahalik eta dui-
nena izatea euskaldunek kontsumitzen dituzten hedabideetan, eta, be-
raz, erdara hutseko eta euskararentzako lekurik gabeko hedabiderik
hemengoan artean egon ez dadin ahalegintzea. Azken batean, betikoan
betiko egon ordez, bide berriak ere bilatu beharko ditugu.

Anjel Lertxundiren hitzok ezin egokiagoak direlakoan nago: “Gure
libertatetik, abandonua. Edo gure libertatetik, atxikimendua. Biak dira
posible, askatasunak hori du. Baina askatasunetik jaiotako atxikimendu
pertsonalen metaketak —atxikimendua ez da faktore bakarra, baina bai
oinarritzakoa— berebiziko garrantzia izango du euskararen etorkizunean.”

Adostasun sozial eta politikoa ere atxikimenduaren elikagai nagu-
sizat jotzen dugu. Izan ere, arestian esan legez, euskararen auzia herritar
guztiena den neurrian eta euskararen etorkizuna herritarren esku da-
goen heinean (“geuk nahi dugun arte... eta ahal dugun neurrian”), be-
har-beharrezkoa da adostasun sozial eta politiko ahalik eta zabalena
osatzea eta elikatzea euskararen mesedean. Badugu ustea, “adostasuna
nolako - atxikimendua halako” binomioaren egiazkotasunean.

Euskarak 25 urteotan EAEn izan duen aurrerabideak duela 30 urte
Euskararen Legea onartzerakoan Eusko Legebiltzarrean ordezkartza
zuten talde abertzale eta ez abertzale gehienek adostasunez ehundutako
adostasunean du abiaburua. Gorabeherak gorabehera, modu barean
eta kontsentsu-giroan egin du bere ibilbidea urteotan euskarak. Kon-
tsentsu horri atzeraldirik gabe eustea, eta gainera zabaltzea eta indar-
berritzea beharrezkoa da erronka berriei arrakastaz aurre egiteko. V In-
kesta Soziolinguistikoaren arabera, EAEn herritarren %62k dio euskara
sustatzearan alde dagoela, %12k kontra, eta %26k ez alde ez aurka.
Hiru multzo nagusi horien baitan ere izango da, zalantzarik gabe, dife-
rentzia nabarmenik (“erabat alde”, “alde bai, baina”...), baina horien
guztien artean adostu behar da etorkizuna, jakina, euskararen aurrera-
bidea bermatu ahal duen etorkizuna.

(Hizkuntza) Bizikidetza eratzea guztien eskubidea eta guztien egi-
tekoa da, eta, gainera, askotarikoen arteko adostasun sendorik gabe ne-
kez egingo du aurrera euskarak. Kontsentsua indarberritu eta zabaldu
beharrean gara, eta malgua baina aldi berean anbizioduna izan beharko
du hizkuntza-desoreka gainditzeko helburuarekin. Ezaugarri horiek —za-
bala, malgua, anbizioduna— dituen neurrian izango da eraginkorra kontsentsua.

Hori guztia ahalbidetzeko ere makulu garrantzizkoa izango da fra-
ming berria. Besteak beste, adostasun sozial eta politiko horrek oso
kontuan hartu beharko dituelako zeintzuk diren euskara indarberritzeko
gutxieneko baldintzak, eta zeintzuk bakoitzaren egitekoak. Izan ere, ja-
kina baita hizkuntzen bilakaera eta bizi-indarraren nondik norakoa ez
direla gertakari naturalak, hainbat faktoreren eraginpean daudenak bai-
ziz. Faktore horietako askotan esku har daiteke, eta esku hartu behar
da, kontuan hartuz auzia ez dela euskarak biziraungo duen edo ez,
baizik eta sasoitsu irauteko eta garatzeko behar besteko neurrian erabilia
izango den edo ez. Hortaz, artikulua hasieran esan duguna —“geuk
nahi dugun arte iraungo du”— beste honekin osatu beharko genuke:
“irauteaz gain hedatu, *ahal* duguneraino eta *ahal* dugun neurrian” he-
datuko da euskara, *nahi* izate hutsa ez baita aski *ahal* izateko. Egin egin
behar da, beraz, eta egite horretan helburu aurreragarri baina egingarriak
dira baleko.

Hortaz, etsipenetik bezala ameskerietatik urrun, zehaztu eta eza-
gutzero eman behar da zer den geure hizkuntza portaeren esku dagoena,
zer den norberaren esku baino ez dagoena, zer den gizartearen esku
dagoena. Guztia ez baitago arauen eta herri-aginteen borondate politi-
koaren eta jardunaren esku. Baina herri-aginteen esku ere asko dago:
adibidez, beste zenbait egitekoren artean, euskararen erabilera sustatzea
eta prestigiatzea, erabiltzeko aukerak sortzen laguntzea, eta, erabilera-
aukerak sustatu eta sortzeaz gain, erabilera bermatzeko neurriak hartzea.
Horretarako guztiorretarako bistan da behar dugula Martínez de Lunak
proposatzen duen *framing* berria, Hizkuntza Ekologiaren, Berdintasun-
aren eta Iraunkortasunaren iturritik edango duena. ●

OHARRA

1. BAT Argitalpen Batzordearen oharra: Batzordeari komenigarria iruditu zaio artikulua
hau Patxi Baztarrika egileak gaur egun duen karguaren izenpean ematea, hau da, Eusko
Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordearen izenpean. Nolanahi ere, kontuan
izan behar da idazteko gonbidapena onartu eta BAT aldizkarira artikulua igorri zuen ga-
raian egileak ez zuela kargu hori betetzen.

**“Irauteaz gain
hedatu, ahal
duguneraino eta
ahal dugun
neurrian”.**